

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jendaurrean jartzea zabor bilketako zerbitzu publikoa ematearen tasaren 2019ko lehen seihi- lekoaren errolda, eta kobrantza epea irekitzea

Eginda dago zabor bilketako zerbitzu publikoa ematearen tasaren 2019ko lehen seihi-lekoaren errolda. Hortaz, honen bidez, errolda hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodunaz, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, interesa dutenek aztertu ahal izan dezaten eta, hala badagokio, egoki deritzeten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsizat emango da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2019ko urtarrilaren 29tik martxoaren 29ra.

B) Betearazte aldia: 2019ko martxoaren 30etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2019ko urtarrilaren 10a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO